



TELEKOMUNIKAZIO-SAREETAKO INSTALAZIO IRRATI-ELEKTRIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

HITZAURREA

Telekomunikazioen merkatuaren liberalizazioaren eraginez azkar hazi dira kalitatezko zerbitzua prestatzeko beharrezkoak diren telekomunikazioko elementu guztiak. Telekomunikazio-zerbitzuek lurraldean eragin zuzena duten azpiegiturak behar dituzte. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak onartutako operadoreen ezarpen-prozesuak eta horien merkatuak duen gorakada azkarrak nolabaiteko disfunczioak eragiten ari dira eta disfunczio horiek eragina dute Toki Administrazioan.

Udalerriek prozesu honetan esku hartzeko ahalmena dute, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25, 26 eta 28. artikuluetan eta hirigintza eta ingurumen arloko arauetan onartu eta aitortutako aginpide eta eskumenen indarrez.

Ordenantza honetan jasotako udal erregulazioaren kalte barik, erabat aplikagarria eta nahitaez bete beharrekoa da telekomunikazioen sektore espezifikoari erregulatzen duen araudia. Gaur egun, hor da azaroaren 3ko Telekomunikazioen 32/2003 Lege Orokorra, hala nola Lege hori garatzeko Dekretuak eta apirilaren 4ko 401/2003 Errege Dekretua, telekomunikazioko azpiegitura komunei buruzkoa eta mota honetako instalazio eta ekipa ezberdinen erregelamendu eta espezifikazio teknikoari buruzkoa.

Lege horren garapenean izan denik eta xedapenik garrantzitsuenetakoa, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretua izan da, jabari publiko irrati-elektroa babesteko baldintzak, emisio irrati-elektroko mugak eta osasuna emisio irrati-elektroetatik babesteko neurriak ezartzen dituen erregulazioa onartzen duena, ordenantza honen erregulazio eremua eta esparrua zehazten du-eta.

1066/2001 Errege Dekretuan azaltzen den zioen eta arrazoien azalpenean adierazten da xedapen horren bidez, bere gain hartzen direla jendea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruzko Europako Batasuneko Osasun Ministroen Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko Gomendioan ezarritako irizpideak, osasuna emisio irrati-elektrokoek sortutako eremu elektromagnetikoetatik babestekoak alegia.

Horrenbestez, ordenantza tresna baliagarria izango da mota honetako instalazioek bete beharko dituzten ingurumena babesteko baldintzak, segurtasun-baldintzak edo hirigintza-baldintzak ezartzeko. Izan ere, mota honetako instalazioetarako baimena ematerakoan alderdi hauek kontrolatuko dira.



I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honek Laudio udalerrian telefonia mugikorrek zerbitzuetako instalazioek beren kokapen, instalazio eta funtzionamendurako bete behar dituzten udal-baldintzak arautzea du helburu eta instalazio horien inplantazioak ahalik eta ikus- eta ingurumen-eragin txikiena izan dezaten lortu nahi da.

2. artikulua. Aplikazio-esparrua.

1. Ordenantza hau aplikatuko zaie Laudio Udalerriko terminoan kokatuta dauden telekomunikazio sareetako instalazio irrati elektrikoek sortutakoak diren energia isuriekiko zerbitzuen erabilera duten azpiegitura guztiei, hala GSM telefonia mugikor automatikoko zerbitzuen erabilera dutenak prestatzeko, nola DCS-1800 komunikazio mugikor pertsonaletako zerbitzua, komunikazio mugikorren edo hirugarren belaunaldikoen zerbitzuak. Xede horietarako, estazio irrati elektrikotzat hartuko da transmisore edo hartzaile bat edo gehiago, edo bi horien bateratzea, irrati bidezko komunikazioa segurtatzeko instalazio osagarriak edo ezinbestekoak barne hartuta.

2. Aplikazio-esparru horretatik kanpo geratu da beren beregi kable bidezko difusio oro.

II. TITULUA

GARAPEN-PROGRAMA

3. artikulua. Programaren edukia.

1. Programak ondoko elementuak zehaztu beharko ditu:

a) Oinarrizko estazio, antena eta irrati-frekuentziako beste elementu batzuen ezarpena.

b) Oinarrizko estazioak eta antenak: izena, Laudio Udalak berariaz adierazitakoen artean kokapenerako proposatzen den aldea.

c) Ekipoak ezartzeko eremu berrien aurreikuspena, aurreikusten den estaldura geografikoa justifikatuta.

d) Lanak burutzeko orientazio egutegia.



2. Soinuko irrati-difusio eta telebista-zerbitzuei euskarri emateko sareak ezarri nahi dituzten operadoreek edo enpresek aurreko paragrafoko a) eta d) atalak zehaztu beharko dituzte gutxienez.

4. artikulua. Telekomunikazio-zerbitzuetarako udal ordenazioa.

Udalak operadore bakoitzaren garapen-programetan biltzen den informazioa erabili ahal izango du, edozein kasutan, eta beti ere, sustatuz, telefonia mugikorreko zerbitzuetako instalazioen kokapena edo azpiegiturak operadoreek partekatzea.

5. artikulua. Garapen-Programa eguneratzea.

Operadore bakoitzaren garapen-programan etorkizunean egin daitezkeen aldaketak Udalari igorri beharko zaizkio.

III. TITULUA

UDAL-BAIMENA

6. artikulua. Lizentzia eskatu behar da.

1. Ordenantza honen xede diren instalazioek hirigintza betebeharrak bete eta legez ezarritako baimenak eskuratu beharko dituzte.

Edozein kasutan ere, instalazioak kokatu behar dira Ordenantza honetako Eranskinean adierazitako kokalekuetan, beti ere.

2. Dagokion udal-lizentziaren izapideak egiteko eta eskuratzeko, instalazioa eta obrak baimenduko dituen baimena emango da aldi berean. Instalazioa abiarazi aurretik Udalari jakinarazi behar zaio instalazioen ikuskapena edo azterketa ontzat ematen duen Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko zerbitzu teknikoaren irizpena, haien proiektuari egokitzen zaizkiola egiaztatzen duena. Xede horretarako, kasuan kasuko instalazio-motaren arabera dagozkion ziurtagiri teknikoak aurkeztutako proiektuari gaineratu eta txertatu egin beharko zaizkio, lizentzia ematearen erabaki horri ahal denik eta zabalkunderik eta publizitaterik handiena eginez.

3. Udal-baimen hori soilik emango da aldeztu aurretik aurkeztu baldin bada proiektu teknikoa eta memoria instalazio irrati elektrikoarena, Ordenantza honetako 3. eta 5. artikuluetan eta I Eranskinean eta aplikaziokoak diren arauen indarrez, beharrezkoak diren baimenak lortuta baditu.

4. Esposizio irrati elektriko mailen azterlanak: Udalaren eskaria azterlan zehatzaren aurkezpenarekin lagunduta joango da, normalean pertsonak egon daitezkeen instalazio irrati elektrikoaren inguruko aldean esposizio irrati elektrikoaren mailak adieraziko dituen teknikari



gaituak egindakoa, 1066/2001 Errege Dekretuko 8. artikulua arautua duena, edo hori ordeztuko duen araudia.

7. artikulua. Neurri osagarriak hartzea.

1. Udal Zerbitzu Teknikoei 6. artikuluan adierazitako udal-baimenen izapideak egiteko aurkeztutako dokumentazio teknikoa egiaztatu ondoren eta aurkeztu ahal izan diren arrazoibideak aintzat hartuta, Udalak hirigintza arloko neurri osagarriak ezarri ahal izango ditu telefonia mugikorreko instalazioen ikus- eta ingurumen-eragina gutxitzeko.

2. Era berean, Udalak, hala egoki irizten badio, baimen-eskatzaille operadoreari iradoki egingo dizkio, aurkeztutako dokumentazio teknikoan oinarrituta, ingurunearekin mimetizatzeko eta harmonian biltzeko beharrezkoak diren ekintzak, bere hirigintza- eta ikus-edo/eta ingurumen eraginari buruzko politikarekin bat, ere ezarri ahal izango dira.

3. Udalak eskatu ahal izango ditu espedientearen instrukzio eta argiketaren ekintza osagarri legez ezagutza zehazteko txostenak eta datuak egiaztatzeko, geroago hartu behar duen erabakia funtsatu eta oinarritzeko

8. artikulua. Udala jakinaraztea.

1. Instalazioaren titulartasuna aldatu nahi bada edo telefonia mugikorreko instalazioetako elementuak ordezkatu edo aldatu nahi badira funtsean, Udalari alde aurretik jakinarazi beharko zaio. Horien ezarpena baimendu behar duena ala ez Udala izango da, hartuko duen erabakia behar den legez oinarrituta eta arrazoituta egon behar izango delarik.

2. Baimena lortzeko funtsezkoak izan diren ezaugarriak erabat aldatu edo berri nahi badira, berauek instalatzeko eskatu ziren baldintza berak bete beharko dira, alde aurretiko Udalaren baimena lortuta eta eskuratuta izanda.

9. artikulua. Dokumentazioa.

7.2, artikuluan araututako baimena eskatzerakoan dokumentazio teknikoa gaineratu beharko da. Dokumentazio tekniko honen gutxieneko edukia I. eranskinean finkatuko da.

IV. TITULUA

INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

10. artikulua. Irizpide orokorrak.

Izaera orokorrez irrati-frekuentziako instalazioek irizpide hauek bete beharko dituzte:



1. Merkatuan dauden teknologien artean ikus-eraginik txikiena eta ingurumenaren gainean eraginik txikiena sortzen duen teknologia erabili behar da, beti ere 2002/21/CE Zuzentarauan xedatutako teknologia-neutraltasun irizpidea errespetatuz.

2. Ingurunearekin bateragarriak izan behar dute, ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina murriztuz.

3. Ordenantza honen II. eranskinean jasotzen diren integrazio arkitektonikoari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.

4. Beren gain hartu beharko dituzte 1066/2001 Errege Dekretuaren 8.7 artikuluan instalazio irrati-elektrikoen enpresa-plangintzari buruz jasotako irizpideak edo hauek ordeztu edo garatuko dituen araudia.

11. artikulua. Kokatzeko irizpideak.

1. Laudio-ko udalerrian telekomunikazio-instalazioetarako eskatutako balizko kokapenak finkatzerakoan, indarrean dagoen legeriak ezar ditzakeen irizpidez gain, ondokoak irizpideak ere hartu behar dira aintzat:

a) Eraikin estalkietan kokatutako oinarrizko estazioak.

- Debekatuta dago antenak ipintzea euren euskarria eraikineko teilatuko karelean edo fatxadaren errematean ainguratuta.

- Elementu lauetan, dorre horietako alboetako hormetan edo teilatuko edozein elementu irtenean ainguratutako antenetako masten euskarriek ondorengo arauak bete behar dituzte:

* Instalazio hauetako parte den edozein elementu kokatuta dagoen eraikineko edozein kanpo aldeko fatxadako planoarekiko 2 metro atzera eramanda egon beharko da.

* Masta edo euskarri elementuek eta antenek osatutako konjuntoko estalki gaineko altuerarik handiena kono zuzen bertizearena izango da; ardatzak masta edo euskarriaz bat egin behar du bere sortzaileak ardatz horrekiko 45°-ko angelua eratu eta kanpo aldeko fatxada karela edo bazter ertza gainetik gutxienez metro 1 altuera edukiko du elementu horiek islatu bertikalaz bat eginez. Altuera hori 8 metroz behera izan behar da beti.

- Masta edo euskarri egitura lotuta geratzeko tenka-sokak ainguratu behar dira elementu horien herena baino altuera baxuagoan.

- Estalki inklinatuetan ainguratutako antenen mastek edo euskarri elementuek lehengo atalean erabakitako arauak bete behar dituzte, baina ondorengo berezitasunaz: masta edo euskarri elementu eta antenek osatutako konjuntuoak estalki gainetik altuerarik handiena izango da kono zuzen baten bertizearena, ardatzak masta edo euskarriaz bat egin eta bere



sortzaileak ardatz horrekiko 30º-ko angelua eratu eta kanpo aldeko fatxadako karela edo bazterreko ertzarekin bat eginez. Altuera hori ezin da izan inoiz 8 metrotik gorakoa.

- Telefoniako oinarrizko estazio jakin bati funtzionalki lotutako biltegien instalazioek eta eraikinetako estalkietan kokatutakoek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

* Segurtasun eta babes pertsonalerako neurri egokiak hartu ondoren, baimendutako pertsonal teknikoa sartu ahal izango da barrura, eta ez beste inor.

* Instalazioak ezin izango du inoiz arriskuan jarri eraikinaren egitura edo bere bizilagunen segurtasuna.

* Lehentasunez teiltatu azpian jarriko dira eta beti teiltatu-hegalen kanpo aldeko ertzetatik proiektatutako horizontalarekiko 45º-ko plano inklinatuek osatutako estalduraz.

* Biltegiaren kokapenak ez du oztopatu behar eraikineko estalki gainera egin beharreko zirkulazioa, mantentze-lanak edo/eta eraikineko eta bere instalazioetako konpontze-lanak gauzatu behar direnean kasuetan.

* Antenen funtzionamendurako beharrezkoak diren ekipo eta elementu elektroniko osagarrien isolamendu termikoa, akustikoa eta elektromagnetikoaren eraginkortasuna bermatu beharko da.

b) Eraikinetako fatxadetan kokatutako instalazioak.

Fatxadetan kokatutako antenen instalazioa baimenduko da, beti eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- Erlaitzaren mailaren azpitik ipiniko dira.

- Bere kokapena fatxadaren konposizio erritmoarekiko egokituko da.

- Fatxadan dagoen hegaleko plano bertikalarekiko antenen bereizketak edo urruntzeak ez du 50 cm gainditu behar.

- Beharrezko litzatekeen edozein kanalizazio edo kableatuaren trazatua fatxadako osagai elementuen konjuntuan integratu beharko da funtzionalki eta estetikoki.

- Biltegia ipinita dagoen lekua ez da ikusi behar kaletik edo bide publikotik.

2. Soinuko irrati-difusio eta telebista-zerbitzuei euskarri emateko sareak ezarri eta Zientzia eta jarduerak hedatu nahi dituzten operadoreek udalerrri honetan eskatutako kokalekuetan ezin izango dira jabari publiko irrati-elektrikoa babesteko baldintzak, emisio irrati-elektrikoen mugak eta osasuna emisio irrati-elektrikotatik babesteko neurriak ezartzen dituen Araudia onartzen duen 1066/2001 Errege Dekretuaren II. Eranskinean adierazitako potentzia-dentsitateko gehienezko balioak gainditu, ezta garapen-araudian adierazitakoak ere.



12. artikulua. Kokapenen eta elementuen erabilera partekatua.

1. Udalak, hirigintza edo ingurumen arloko arrazoiek justifikatuta eta interesatuei entzun ondoren, alde zurretiko kokapenak partekatzeko akordioak adostea bultzatuko du, arrazoi teknikoan edo juridikoengatik ezinezkoa denean izan ezik edota bereizita instalatzen diren instalazioen kasuan baino ikus-eragin handiagoa edo ingurumenaren gaineko eragin handiagoa izan daitekeen kasuetan izan ezik.

2. Laudio udalerrian estazioen kokapenaren erabilera partekatua aplikatuko da, azaroaren 3ko 32/2003 Telekomunikazioetako Lege Orokorreko 30. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Aurreko paragrafoan jasotako konpromisoa, hots, kokapenaren elementu nagusiak (sarbide berriak, euskarri-dorreak, tresna osagarrien etxolarako hartu beharreko lursaila, antenak eta abar) partekatzekoa, operadoreek sinatu beharreko hitzarmenean islatu beharko da eta hau Udalarari helarazi beharko zaio.

4. Nolanahi ere, kasu hauetan mota honetako instalazioetarako goi-tentsioko energia elektrikoaren hornidura bateratu egin beharko da.

13. artikulua. Gainerako instalazio-operadoreei beste kokaleku baten berri emateko prozedura.

1. Operadore batek Telekomunikazioetako Oinarrizko Estazioa instalatzeko lizentzia eskatzen duenean, Ordenantza honetan aurreikusitako kokapenean, Udalak lehian diren gainontzeko operadoreei jakinaraziko die. 20 eguneko epea emango zaie gainontzekoei erabilera partekatua egin nahi duten ala ez, salbu eta operadore eskatzaileak egiaztatzen badu jakinarazpen hori dagoeneko gauzatuta dagoela.

2. Operadoreen batek erabilera partekaturako interesa azaltzen badiu Udalarari, aldeek hogeitun eguneko epea izango dute horretarako baldintzak askatasunez finkatzeko.

3. Aurreko hogeitun eguneko epea amaitu eta gainerako operadoreek erabilera partekaturako interesa azaltzeko adierazpenik egin ez badute edo interesa adierazi badute baina operadoreen arteko harremanetan akordiorik lortzen ez bada, Udalak baimentzen den kokapenaren erabilera partekatua bermatzeko betebeharra erabaki dezake.

4. Prozedura honetan akordiorik lortzen ez bada, Udalak kokapena partekatzeko betebeharra ezartzea eskatu ahal izango du indarrean dagoen araudiari jarraiki.

14. artikulua. Telefonia mugikorreko hainbat estazio kokaleku berean instalatzea.

Operadore desberdinen hainbat estazio irrati-elektriko kokaleku edo kokapen berberaren barruan instalatzen badira, baimendutako operadoreek, batera edo kokalekuaren kudeatzailearen bitartez, jabari publiko irrati-elektrikoa babesteko baldintzak, emisio irrati-elektrikoaren mugak eta osasuna emisio irrati-elektrikoetatik babesteko neurriak ezartzen dituen



Araudia onartzen duen irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritako esposizio-mailei buruzko estatuko araudia bete izanaren egiaztatzea aurkeztuko diote Udalari.

V. TITULUA

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

15. artikulua. Instalazioen kontserbazioa eta segurtasuna.

a) Baimenen eta emakiden titullarrek bere gain hartuko dute hauek segurtasun eta kontserbazioeko egoera egokietan mantentzearen ardura.

b) Udal-zerbitzuek kontserbazio-egoera eskasa antzematen dutenean, irregulartasunaren berri eman beharko diete baimenaren titullarrei, jakinarazten zaienetik epe jakin baten barruan bidezko neurriak har ditzaten.

Pertsonentzako edo ondasunetarako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak antzematen direnean, berriz, bidezko neurriak berehala hartu beharko dira, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera. Instalazioetan, iraungitako elementuren bat balego, Udalak hori erretiratzea edo aldatzea eska dezake.

c) Jarduera behin betiko uzte kasuan edo jarduneko elementu batzuk ez badira erabiltzen, Irrati-komunikazioeko ekipoak edo bere elementuak eta instalazio hori eusten duen eraikuntza edo eraikina desmuntatu eta erretiratu edo kentzeko, lizentziaren titullarrak edo instalazioen jabeak beharrezko ekimenak egin beharko ditu edo instalazio horien euskarri izan den eraikuntza edo eraikina garbi uzteko.

16. artikulua. Kautelazko neurriak salbuespenez hartzea.

1. Salbuespen gisa eta zigor-espediteari hasiera eman aurretik, beti ere estazioetako akatsak konpondu eta zuzentzeko Udal agintariak egindako errekerimenduei kasurik ez bazaie egin, zigor-izaera izango ez duten ondoko kautelazko neurriak erabaki edo ezarri ahal izango dizkio Udalak ordenantza honetan arau-hauste gisa zehazten diren edozein gertakariren ustezko arduradunari:

a) Obrak edo jarduerak etetea.

b) Aparatuak edo ekipoak zigilatzea.

c) Ingurumenarekiko kaltea zabal dadin eragotziko duen zuzenketa, segurtasun edo kontroleko beste edozein neurri.



VI. TITULUA

ARRISKUAK BERMATZEKO ETA ASEGURATZEKO TRESNAK

17. artikulua. Arriskuak aseguratzea.

1. 7. artikuluan jasotako baimena eskatzen duten operadoreak ordezkatzan dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek aseguru-tresnen titulartasuna justifikatu beharko dute; alabaina, aseguru hauek instalazio irrti-ekonomikoak ezartzeak ondasunetan eta pertsonengan izan ditzakeen ondorioei behar bezala erantzuteko aukera eman beharko dute.

2. Aurreko artikulua onduetarako, ondoko tipologiaen artean hautatu ahal izango da:

a) Autoaseguru-sistemak udalarentzat behar beste bermatuta egon beharko direnak.

b) Aseguruaren merkaturako kontratutako berariazko aseguruak, bai erantzukizun zibilari dagokionez, bai beren ondasun eta instalazioei dagokienez.

3. Modalitate hauetako edozeinetan aukeratutako tresnak eskatzaileak udalerrian bere titulartasunpean dituen instalazio guztiak estali beharko ditu.

VII. TITULUA

ZIGOR-ARAUAK

18. artikulua. Aplikatu daitezkeen araudia.

Antolamendu honen ondoriozko arau-haustek indarrean dagoen legeriaren arabera zigortuko dira.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

LEHENA: Baimenik gabeko irrti-komunikazioko instalazioak.

Bidezkoak diren zigoren kalterik gabe, Alkateari irrti-komunikazioko instalazio bat ordenantza honetan arautzen den aginduzko baimenik gabe funtzionatzen ari dela jakinarazten zaionean, Alkateak honela jardungo du:

a) Instalazioak ordenantza honetako baldintzak betetzen baditu, instalazioa legeztatze epe jakin bat emango zaio; nolana ere, epea ez da sei hilabetetik gorakoa izango.



b) Indarrean dagoen sektoreko araudia edo ordenantza honetan xedatutakoa ez betetzeagatik ezin bada legezatu, itxi egin behar da, aurrez interesatua entzunda.

BIGARRENA: Jadanik instalatuta dauden Telekomunikazioko Oinarrizko Estazioak.

Jadanik instalatutako telekomunikazioko oinarrizko estazioak batera leku berean agertzen direnean, arian-arian elementuak partekatzeko Hitzarmenak edo Akordioak lortzea erraztuko da; baina Udala izango da proposatuko duena, betiere, instalazio horien behin betiko kokapena, Ordenantza honetan ezarritako eta ebatzitako irizpideen arabera.

HIRUGARRENA: Muga irrati-elektrikoak

Telekomunikazio-sareen jabetzako instalazio irrati-elektrikoetan jatorria eta iturburua duten eremu elektromagnetikoetan sortutako emisio irrati-elektriko guztiek legez ezarritako mugak bete beharko dituzte, hots, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan edo berau osatuz edo ordeztuz ematen den araudian adierazitakoak, enpresek kolokatu beharko dutelarik ahal denik eta elementu zenbatekorik gutxien zerbitzua prestatzeko erabakitako kokapenetan.

LAUGARRENA: Kokalekua eta aldatzeko epea zehaztea.

Arraño auzunean dauden instalazio irrati-elektrikoen funtzionalitatea, estaldura eta potentziaren kontrola hobetzeko helburuaz, gaur egungo horien titularrek edo arduradunek lekuz aldatu beharko dituzte Arraño mendiko kotarik altuenean, Gurutzearen ondoan, ezarri beharko duten partekatutako instalaziora.

Aipatu den instalazio partekatuak eduki ahal izango duen mastaren gehieneko altuera 12,5 m-koa izango da eta terrenoen ezaugarri eta xedeetara egokitu beharko da eta Gurutzeko habetik gutxienez ere 25 m urrunduta geratu, are irispideak eta lurpeko izan beharko den elektrairadarraren hartunea ere.

Leku-aldatze eta partekatutako instalazio horien erabilera egiteko epea, beranduenik jota, Ordenantzako xedapen hau indarrean sartzen denetik hasita urte (1) batekoa izango da.

BOSGARRENA: Kokalekua eta aldatzeko epea zehaztea (San Bartolome).

San Martin kaleko 5 zk.dun jabetza pribatuko eraikinean egun dauden instalazio irrati-elektrikoen funtzionalitatea eta kontrola hobetzeko helburuaz, horien titularrak lekuz aldatu beharko ditu San Bartolomeko partekatutako instalaziora, dela egungo dorrea partekatuz, dela gehienez ere 15 m-ko altueradun masta anitz-operatzaile berri baten instalazioaren bitartez.

Leku-aldatze eta partekatutako instalazio horien erabilera egiteko epea, beranduenik jota, Ordenantzako xedapen hau indarrean sartzen denetik hasita bi (2) urtekoa izango da.

SEIGARRENA: Arauetara egokitzea.

Ordenantza honen objektu diren instalazioak, udal lizentzia badute eta funtzionatzen ari badira, urte bateko epea edukiko du bere instalazio irrati-elektriko guztiak egokitzeko irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan xedatutakora eta erabakitakoa.



XEDAPEN GEHIGARRIA

LEHENA: Garapena.

Ordenantza hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Udalak erregistro berezi bat sortuko du. Bertan Laudio-ko udalerrian jadanik dauden telekomunikazio-zerbitzuak igortzeko eta hartzeko instalazio guztiak erregistratu beharko dira, baita hauetan egin daitezkeen aldaketak ere.

AZKEN XEDAPENA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 70.2 eta 65.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat, ordenantza hau indarrean sartuko da Udaltzatuko Osoko Bilkurak onartu ostean, ALHAOn oso-osorik argitaratu eta 15 egunetara. Aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean indarrean egongo da ordenantza.

I. ERANSKINA

TELEKOMUNIKAZIO-INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK

1. INSTALAZIOEN ZIURTAGIRI TEKNIKOAK

- Eraikinak instalazioaren gainkarga jasan dezakeela egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoak; edozein motatako proiektuko egitura-errefortzurik egin behar izanez gero, hau ere teknikari aginpidedun batek sinatu beharko du.

2- PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA EDO PROPOSAMEN TEKNIKOAK, INSTALAZIO IRRATI-ELEKTRIKOEN BAIMENA ESKATZEKO BEHARREZKOAK.

a) Telekomunikazio-zerbitzu bat egiteko azpiegitura bat ezartzeko interesa duen telefonia mugikorreko operadorea ordezkatzeko duen enpresa eskatzailearen datuak:

- I. Sozietatearen izena eta IFZ.
- II. Helbide osoa.
- III. Legezko ordezkaria.

b) 165/1999 Dekretuaren IV. eranskinean ezarritakoari lotuko zaion eta honako hauek bildu beharko dituen dokumentazio teknikoak:



- Oinarrizko proiektua, teknikari aginpidedunak idatzia. Proiektuak jarduera eta, hala badagokio, instalazioa eta hesiak deskribatzeko behar beste informazio bildu beharko du.

- Zientzia eta Teknologia Ministerioak instalazio irrati-elektrikoa indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzekin baimenduz behin betiko onartu izanaren egiaztatzea.

c) Instalazioaren datuak.

I. Antenaren kokapena jasotzen duen planoan, UTM koordenatuetan eta gehienez ere 1:2000 kartografian, lauki-sarea barne izan beharko duena. Planoan ingurumen-arloko ebaluazioan eragina duten azpiegiturak grafiatu beharko dira.

II. Eraikin mugakideen kokapen erlatiboa adieraziko duen 1:200 eskalako planoan.

III. Indarrean dagoen hiri-plangintzaren arabera instalazioak hartzen duen luraren sailkapenaren eta kalifikazioaren egiaztatzea.

3. MEMORIA

Memoriak ondoko edukia izan beharko du:

a) Egituraren ikuspuntutik eta eraikinarekiko ainguren ikuspuntutik instalazioen egonkortasunaren kalkulu justifikatzaileak, dagozkion eraikuntza-planoak ere jaso beharko dira.

b) Ezarri beharreko ekipoen tipologiari eta ezaugarriei dagokienez teknologiarik onena erabiltzearen justifikazioa, hala ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko, Europako araudiak markatutako teknologia neutraltasun irizpidea gordez.

c) Jatorri atmosferikoko deskarga elektrikoen aurka babesteko hartutako neurri zuzentzaileen deskribapena eta justifikazioa. Ikus-eraginaren dokumentazio fotografikoa, grafikoa eta idatzia; dokumentazio honetan argi eta garbi jaso beharko da instalazioak finkari dagokionez duen kokalekua eta finkaren beraren kokapena: instalazioa ezarriko den ingurunearen deskribapena, hedadura, forma, materialak eta beste ezaugarri batzuk. Oinezkoaren ikuspuntutik instalazioak duen ikus-eraginaren simulazio grafikoa ere gaineratu beharko da.


II. ERANSKINA

INSTALAZIOKO SEGURTASUN-ARAUAK

Gutxieneko tartekak

I. Eraikinaren ertzean dauden antenak.

Antenak eraikinaren ertzean jarri behar direnean eta bertarako sarbidea instalazioaz kanpoko pertsonekin partekatu behar denean, gutxienez 2 metroko tartea utzi beharko da antenaren beheko ertzaren eta eraikinaren azalaren elkarzutaren artean.



II. Eraikineko estalki gaineko antenak.

Antenak eraikineko estalkian jarri behar direnean eta estalkia instalazioaz kanpoko pertsonen sarbidearekin partekatu behar denean, eraikinaren ertzarekiko tartearekin proportzio zuzenean gehituko den gutxienez 2 metroko altuera errespetatu beharko da.


III. Norabide orotako antenak.

Debekatuta dago, izaera orokorrez, antenaren norabide nagusian 10 metro baino gutxiagoko erradioan antenaren instalazioaz kanpoko pertsonak sartzea.

Nolanahi ere, sarrera-eremuan ezin izango dira irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan edo berau ordeztu edo garatzen duen araudian jasotako potentzia-dentsitateko gehienezko balioak gainditu.

III ERANSKINA


INSTALAZIO IRRATI-ELEKTRIKOEN KOKAPENA




FECHA DATA OCTUBRE 2010	PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LAS INSTALACIONES RADIOELÉCTRICAS PERTENECIENTES A LAS REDES DE TELECOMUNICACIONES.-U-311/02.	REFERENCIA ERREFERENTZIA
ESCALA ESKALA 1/10000	PLANO DE PLANUA SITUACIÓN DE CENTROS TRANSMISORES "OLETA BIDEA, MORTERU-LARRA Y SAN BARTOLOMÉ"	PLANO N° PLANU ZK. 1.0



Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net



<p>FECHA DATA OCTUBRE 2010</p>	<p>PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LAS INSTALACIONES RADIOELÉCTRICAS PERTENECIENTES A LAS REDES DE TELECOMUNICACIONES.-U-311/02.</p>	<p>REFERENCIA ERREFERENTZIA</p>
<p>ESCALA ESKALA 1/10000</p>	<p>PLANO DE PLANUA SITUACIÓN DE CENTROS TRANSMISORES "ARRAÑOKO GURUTZEA Y KATUXA-IBARRA"</p>	<p>PLANO N° PLANU ZK. 2.0</p>



<p>FECHA DATA OCTUBRE 2010</p>	<p>PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LAS INSTALACIONES RADIOELÉCTRICAS PERTENECIENTES A LAS REDES DE TELECOMUNICACIONES.-U-311/02.</p>	<p>REFERENCIA ERREFERENTZIA</p>
<p>ESCALA ESKALA 1/10000</p>	<p>PLANO DE PLANUA SITUACIÓN DE CENTROS TRANSMISORES "PAGOLAR"</p>	<p>PLANO N° PLANU ZK. 3.0</p>